

PERPAUSA ETA BERE OSAGAIAK

Perpaus bakuna

1. -PERPAUSA

IS nor (subjektua) + AS (predikatua)

IS nork (subjektua) + AS (predikatua)

2.- IS NOR eta NORK

IS nor → IS + erlazio hizkia (Ø)

IS nork → IS + erlazio hizkia (-k)

3.-IS

Izen sintagma → (izenlaguna) + izena + (izenondoa) + determinatzailea

IS → (Izlag.) + Iz. + (Izond.) + (Det.)

- Gunea izena edo izenordaina da.
- Determinatzaileak:
 - o Mugatzaileak (-ak, -hura ...)
 - o Zenbatzaileak
 - o Nolakotzaileak
- Adjektiboak:
 - o Izenondoak (izenaren eskuinaldean)
 - o Izenlagunak (izenaren ezkerrealdean)

4.-AS

Aditz sintagma → (aditzlaguna) + (aditzondoa) + (IS nor) + (IS nori) + aditza

AS → (Adlag.) + (Adond.) + (IS nor) + + (IS nori) + Ad.


- Aditza da gunea.
- Adberbioak:
 - o Aditzondoak (aditzaren ezkerrean zein eskuinean). Denborazkoak (atzo), lekuzkoak (han), moduzkoak (ongi), mailazkoak (guztiz, oso), iritzizkoak (agian).
 - o Aditzlaguna (aditzaren ezkerrean edo eskuinean). Atzizkiak daramatzaten izenak(- rekin, - rentzat,-tik,...),posposizioak(-ren arabera, -rik gabe, -ri buruz, ...)

1.- PERPAUSA

Perpauza, ortografiari begira, hizki larriaz hasi eta puntu batez bukatzen da. Bestalde, esanahiari begiratzen badiogu, perpauza informazio osoa eskaintzen duen duen testu mailako unitaterik txikiena da.

Testua da, jakina, informazio osoa duen komunikazio unitaterik txikiena. Testu batek milaka perpausez osaturik egon daitezke, edo perpauz bakar batez, iragarki anitzetan gertatzen den bezala.



Unitate gramatikalen ierarkia honako hau izan daiteke:



Gramatikaren ikuspuntutik, perpauza IS nor edo nork eta AS-z osatuta dago gehienetan. Perpauzen egitura posibleak honako hauek dira:

IS nor (subjektua) + AS (predikatua)

IS nork (subjektua) + AS (predikatua)



2.- NOIZ IS NOR eta NOIZ NORK?

Erantzuna eman aurretik kontzeptu zenbait argitu beharko ditugu:

Alde batetik, **kategoria gramatikalak** daude: Testuak ... perpausak, IS nor, IS nori, IS nork, IS, AS, izenak, izenondoak, izenlagunak, aditzak ...


Beste aldetik, **funtzioak** ditugu: subjektua, predikatua, predikatu osagarria, objektu zuzena, zehar objektua...

Horrela, izen sintagmek, deklinabide kasuak dituztenean (nor, nori edo nork) funtzio desberdinak bete ditzakete perpausaren barruan.

IS nor	subjektua	IS nork → subjektua
	objektu zuzena	
	predikatu osagarria	IS nori → zehar objektua

Hasierako galdera horri erantzuna emateko bi bide desberdin azter ditzakegu:

a) **Perpausak objektu zuzena bada, IS nork izango du;** adibidez:



Objektu zuzena duen ala ez jakiteko, hurrengo formula erabiliko dugu:

Zer + Ad. + Sub.

Aurreko adibidean, galdera da: Zer erosi ditu Mikelek?

Formula horrek balio du baldin eta objektu zuzena objektu bada; baina, objektu zuzena pertsona bat izatekotan, zer? Formula aldatuko genuke:

Nor + Ad. + Sub. Adibidez, Nik Maria maite dut. Nor maite dut nik? Maria.

Galdera zentzurik ez izatekotan, perpausak ezingo du objektu zuzenik izan, eta IS nor ezarriko dugu:

Mikel mendira doa. *Zer doa Mikel?

Ikus daitekeenez, galdera hori gaizki egin dago; ez da euskara.

b) Perpausaren aditza kontuan hartuko dugu.

Aditza NOR edo NOR-NORI sistemakoa bada, IS nor erabiliko dugu.

dabil, zetorren, gara, zaizkie, gintzaizkizun...

Aditza NOR-NORK edo NOR-NORI-NORK bada, IS nork erabiliko dugu.

daramat, zekarren, dugu, zintuen, dizkizuet, nion...

Bide hau erabiltzeko, jakin behar dugu adizki guztien sistema, jakina.

3. IZEN SINTAGMA

3.0. IS nor eta IS nork

3.1. Izen sintagmaren egitura

3.2. Izena eta izenordaina

3.2.1. Izena

3.2.2. Izenordaina

3.3. Determinatzailea

3.3.1. Mugatzaileak:

3.3.1.1. Artikulua

3.3.1.2.- Erakuslea

3.3.2. Zenbatzaileak:

3.3.2.2. Zehaztuak: kardinalak, ordinalak eta banatzaileak

3.3.2.2. Zehaztugabeak

3.3.2.3. Orokorrak

3.3.3. Nolakotzaileak

3.4. Adjektibo sintagma

4.1.- Izenondoa

4.2. Izenlaguna

3. - IZEN SINTAGMA

3.0. IS nor eta IS nork



Aurreko atalean esan bezala, perpaus bat bi sintagmez osaturik dago: alde batetik, IS nor edo IS nork, eta beste aldetik AS.

Izen sintagma, nor edo nork deklinabide kasuaz libratzeko, formula hauek erabiliko ditugu:

IS nor $\rightarrow$ IS + erlazio hizkia (-Ø)

IS nork $\rightarrow$ IS + erlazio hizkia (-k)

Horrela, izen sintagma guztiak berdinak izango dira aztertzeke orduan.



3.1. Izen sintagmaren egitura

Izen sintagmaren ardatza izena (edo izenordaina, haren faltan) da:

Peio etorri da. (Izena)

Ama etorri da. (Izena)

Zu etorri zara. (Izenordaina)

Gune honek, ordea, osagarri edo ingurutzaile batzuk ere har ditzake:

- Adjektiboak:
 - Izenlagunak (izenaren aurrean)
 - Izenondoak (izenaren ondoren)
- Determinatzaileak (sintagma itxiz, bukaeran gehienetan).

Hauxe da, beraz, euskal izen sintagmaren egitura edo moldea:

IS $\rightarrow$ (Izlag.) + Iz + (Izond.) + Det.

Izena beti agertzen da; baita determinatzailea ere, izena izen berezia izan ezean. Bi osagai horiek ezinbestekoak dira. Parentesi artekoak (izlag., izond.) ez dira nahitaezkoak izen sintagma osatzeko.

Egiturak hurrenkera zehatza du:

Aitaren	etxe	zaharr	a
izlag.	iz.	izond.	det.

3.2. Izena eta izenordaina

3.2.1. Izena

Izena da izen sintagmaren ardatz edo gunea. Izenari dagokio funtzio hori. Horregatik, funtzio horretan beste edozein hitz mota egonda ere (izenondoa, aditza ...) izentzat hartu behar da. Kategoria gramatikalaz aldatu egiten da. Esate baterako:

- o Gaiztoak jo nau. (Gaizto izenondoa izen gisa ageri da hemen).
- o Jokatzek poz handia eman dit. (Jokatzek aditza ere izen gisa ageri da).

Izaki bizidunak, objektuak, sentimenduak, kualitateak, fenomenoak etab. izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak dira izenak.

3.2.1.1- Ohiko sailkapena

a) Izen berezia / izen arrunta

Izen berezia: Izaki bakar bat nahiz izaki edo objektu multzo bakar bat izendatzen duena:

- o Antton, Gorbeia, New York, Aralar...

Ez dute determinatzaile behar.

Izen arrunta: Mota bereko izakiak aipatzeko erabiltzen dena:

- o Etxe, leiho, txapel, haur, esku...

Hauek determinatzaile behar dute.

b) Izen zenbakarriak / izen zenbakaitzak

Izen zenbakarriak: Izenak kontu badaitezke, izen zenbakarriak izango dira.

- o Bi etxe, hiru arkatx...

Izen zenbakaitzak: kontatu ezin direnak.

- o maitasuna, hotza, gosea, egarria, pena, mina, poza, alaitasuna, tristura, itxaropena, gorrotoa, beldurra...

Izen neurgarriak / izen neurgaitzak.

Kontatu ez, baina neurtu badaitezke, **neurgarriak** dira: hiru litro esne, bost kilo hirin, eskukada bat azukre...; bestela **neurgaitzak**: amodio, hotz ...

d) Bizidunak / bizigabeak

Izenak, bizidunenak (gizakiak eta animaliak) ala bizigabeenak (gainontzekoak, landareak barne) diren ere kontuan hartzekoa da euskaraz, deklinabideko zenbait kasutan ez baitute bukaera bera hartzen:

- o Mendira baina amarengana; zuhaitzetik, baina zugandik...

3.2.1.2.- Bestalde, **formaren arabera** ere sailka daitezke izenak:

a) Bakuna: erro hutsez osatua dena (mendi, esku, ahizpa...)

b) Eratorria: erroa + morfema eratorlea denean.

- o handi + -tasun → handitasun
- o beldur + -garri → beldurgarri
- o des- + ohore → desohore
- o egin + -ra → eragin

c) Elkartua: bi erro edo gehiagoz osatua (basalore, liburudenda, behi esnea...)

3.2.2. Izenordaina

Izenordaina ere izan daiteke gunea izen sintagman, eta gunea ezezik gehienetan izen sintagma osoa ere bai. Izan ere, aski izaten baita bera bakarrik, inolako inguratzaile eta mugatzailerik gabe izen sintagma osatzeko. Izen bereziak bezala jokatzen du horretan. Beraz, berridazketa hau ere litekeena da:

IS → izord.

- o **Zu** pozik zaude.
- o **Norbait** etorri da

3.2.2.1.- Pertsona izenordainak

• Pertsona izenordain arruntak

	SING.	PLUR.
1. perts.	ni	gu
2. perts.	hi, zu (berori)	zuek (beroriek)

• Pertsona izenordain indartuak

	SING.	PLUR.
1. perts.	neu nihaur (neroni)	geu guhaur gerok
2. perts.	heu, zeu herori, zerori	zeuek zerok

3.2.2.2.- Izenordain zehaztugabeak

• **Galdetzaileak:** Nor, Zer, Zein

Nor etorriko da?

Zein etorriko da?

Zein liburu nahi duzu bietatik?

Zer erosiko duzu?

- **Galdetzaileetatik eratorritakoak**

NOR	ZER	ZEIN
norbait	zerbait	edozein, zein-nahi
nor edo nor	zer edo zer	ezein
edonor, nornahi	edozer, zernahi	
inor, nehor	ezer, deus batere	
norbera, bakoitza	zertxobait	
nor bere		

Norbaiti eskatu beharko zenioke laguntza.

Zerbait esan du.

Nor edo nor etorri da.

Zerbait egin beharra daukat.

Edonork egin dezake hori.

Edozeinentzat balio du jantzi horrek.

Zernahi esanda ere, gustura hori!

Inor ez zaigu etorri.

Ezer entzun al duzu nitaz?

Nehor ez da ageri.

Ez dut deus (ere) ikasi.

Norberaren arazoak ezer ez balira.

Bakoitzak egin dezala egin behar duena.

Nor bere etxera joango da gero.

3.2.2.3.- Bihurkariak

Alboko hizkuntzetako erreflexiboak ditugu. Euskaraz, izenordain indartuen genitiboak diren "neure, heure, bere... + burua" formula erabiliz osatzen dira.

Andonik **bere burua** hil du.

Ezingo dugu **geure burua** horretara behartu.

Ni **neure buruarekin** nago haserre, ez zurekin.

Izenordaina era indartuan erabiltzen da (neure, heure, geure, zeure, zeuen, eta bere(n) edo euren).

3.2.2.4.- Elkarkariak

Erreziprokotasuna adierazten dute; hau da, A-k B-ren egintza jasaten du eta B-ak A-rena. Bi elementu behar dira gutxienez, beraz, elkarkaria osatzeko.

(Zuk ni ikusi eta nik zu ikusi) **Elkar** ikusi dugu.

Ume haiek **elkarri** gezurra esan zioten.

Gu **elkarren ondoan** esertzen gara.

Elkarrekin joango gara mendira.

Ez diote **elkarri** hitz egiten.

3.3. Determinatzaileak

Izen sintagmaren osaketan nahitaezkoa da determinatzailea, izena ere den bezalaxe. Izenordainak eta izen bereziak dira salbuespen, hauek ez baitute determinatzailearik onartzen. Izenordainak izen sintagma osoa ordezkatzeko delako eta izen propioa berez mugatua delako gertatzen da horrela.

Hiru determinatzaile mota erabiltzen ditugu.

3.3.1. Mugatzaileak

Artikuluak eta erakusleak dira. Izen sintagmaren eskuinaldean ageri dira beti, sintagma itxiz.

Det. → mug.

3.1.1.- **Artikuluak** Singularreko forma **-a** da. Pluralekoa, **-ak** eta **-ok**.

Gizona**a** etorri da.

Lagun**ak** etorri dira hondartzara.

3.1.2.- **Erakuslea**

Formak absolutiboan (Nor kasuan) honako hauek dira: hau, hori, hura; hauek, horiek, haiek. Singularrean, beste kasuetan, hon-, hor-, eta har- erroak erabiltzen dira: Honetan, horretan, hartan; honi, horri, hari...

3.3.2. Zenbatzaileak

Det. → zenb..

3.3.2.1.- Zenbatzaile zehaztuak

3.3.2.1.1.- Kardinalak

Bat, bi, hiru... eta ondorengoak dira. Zenbakiak, alegia. Izen sintagmaren ezkerrean ageri dira. Salbuespena **bat** da eskuinean agertzen baita. **Bi**-ren kasuan, eskuinean nahiz ezkerrean ager daiteke, euskalkien arabera.

3.3.2.1.2.- Ordinalak

Zenbatzaile kardinalei **-garren** atzizkia erantsiz lortzen dira, eta hala idatziko dira zenbakiak letraz idazten direnean: Zenbatgarren? da galderetarako. Eta erantzuteko: bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren... hogeita batgarren... ehugarren.

Beste era bat idazteko, puntu bidez da: 1., 2., 3., 4. ...

3.3.2.1.3.- Banatzaileak

Kardinalei **-na** atzizkia erantsiz lortzen dira:

Bana, bina..., bosna..., hamarna..., hamabosna..., ehuna..., mila bana... Galderak egiteko, zenbana?

Izen sintagma mugagabea eskatzen du.

3.3.2.1.4.- Zatikia: erdi, laurden, heren...

3.3.2.1.5.- Ehunekoak: ehuneko bost, ehuneko hamar...

3.3.2.2.- Zenbatzaile zehaztugabeak

Ez dute kopuru zehatzik adierazten, gutxi gora-beherakoa baizik. Bakoitzaren ohiturari jarraiki, sintagmaren ezker edo eskuinaldean koka daitezke eta aditzarekiko komunztadura singularrez edo pluraleraz betetzen dute.

- Asko eta gutxi: Musikari asko izan d(ir)a plazan. Sagar ustel gutxi ekarri d(it)ugu.
- Zenbait: Zenbait parranda handi egin d(it)ut. Emakume zenbaitek hala ulertzen du hori.

- Anitz: Sagar ustel anitz ekarri dugu. Anitz etxe egin dute urte gutxian Hendaian.
- Franko: Ipuin franko kontatu zi(zki)dan umetan aitonak. Bada (badira) franko deabru saindu itxura duena (dutenak)
- Batzuk: Gezur batzuk esan dizkiot.
- Honenbeste, horrenbeste, hainbeste, hainbat, ugari, dexente, nahiko, aski, makina bat, pixka bat, e.a. ere zehaztugabeen artean sartzen dira.

3.3.2.3.- Zenbatzaile orokorrak Zenbat? Galderari erantzuten diote. Eta erantzuna osotasunari begira dago. **Guzti**, **dena**, **oro** eta **oso** dira zenbatzaile orokorrak.

- Herri orotan gauza berdintsuak gertatzen dira.
- Euskaldunok oro jakin behar genuke hori.
- Gizonek orok esan dute hori.
- Lortu zuen zur guztia erabili zuen.
- Liburu hau guztia irakurri behar duzu.
- Denek egin dute.
- Denei bina eman zizkien.
- Turroi tableta osoa jan dugu.
- Talde osoari eman diot gaur jipoia.

3.3.3.- Nolakotzaileak (Determinatzaile zehaztugabeak)

Izenaren ezkerrean agertzen dira beti eta, beste-ren kasuan izan ezik, ez dute mugatzailerik onartzen. Honako hauek ditugu: zer, zernahi, edozer; zein, zeinahi (zein-nahi), edozein, beste.

- Zer liburu irakurri behar dituzu aurten?
- Zernahi liburu irakurrita ere, ondo.
- Edozer drogak kalte egin dezake.
- Zure beste semearekin egin behar dut antzezlan.
- Beste saskiratze bat egin du Baskoniak.
- Gaur beste azterketa bat izan dugu.

3.4. Adjektiboak

Izen sintagmaren osagai garrantzitsu bat da adjektiboa. Izenari buruzko informazioa ematen du, ñabarduraren bat erantsiz eta berau zer-nolakoa den adieraziz.

- Mutil txikia negarrez gelditu zen.
- Auto berria erosi dugu oraindik orain.
- Informatikako ikastaroa antolatu dute eskolan.
- Arrebaren bakeroak jantzi ditut gaur.

Bi mota bereizten dira:

- **Izenondoak** (izond.) izenaren eskuin aldean jartzen diren adjektiboak: txiki, berri, desegoki, beltz, moderno...

- **Izenlagunak** (izlag.), -ko eta -(r)en erlazio hizkien bidez osatuak: etxeko, zementuzko, adiskidearen, nire, herriranzko...

3.4.1. Izenondoak

Gauzak nolakoak diren, zein forma, tamaina edo pisu duten, zein zapore, leuntasun, zakartasun, kolore, etab. adierazten du. Nolako galderari erantzuten dio eta, arau orokor gisa, izenaren eskuinean dator: agure zahar, neska alai, etxe handi...

Hona hemen berriro ere ISren egitura:

IS → (Izlag.) + Iz. + (Izond.) + Det.

Izenondoa parentesi bitartean jarri dugu ISn derrigorrezkoa ez delako.

Ezkerrean ere ager daiteke, baina -tar eta -dun atzizkiz osatutakoa denean bakarrik. Atzizki hauekin ezker nahiz eskuinean joan daitezke izenondoak.

- Azpeitiar neska bat edo neska azpeitiar bat
- Bizardun mutil bat edo mutil bizardun bat.

Izenondo bat baino gehiago ere jar daiteke izenaren ondoan, juntagailurik gabe (agure zahar maliziati hori) nahiz juntagailuarekin (agure zahar eta maliziati hori).

3.4.2. Izenlagunak

Hona hemen berriro ere egitura IS-ren egitura:

IS → (Izlag.) + Iz. + (Izond.) + Det.

- Andoniren ama
- Zure adiskidea
- Harrizko etxea
- Autoaren gurpila
- Eskolako zuzendaria
- Herriko alkatea - Errealeko entrenatzailea

Adibideetan ikus daitekeenez, izenaren ezkerrean etortzen da -ko, -(r)en atzizki genitiboen bidez, edo perpausa eta -n atzizkiaren bidez lotua.

Izenlagunen elementuak formula hauetan adierazten dira:

Izlag. → IS + erlazio hizkia (-en)

Mikelen liburua

Izlag. → IS + erlazio hizkia (-ko)

Mendiko lorea

Izlag. → Adlag. + erlazio hizkia (-ko)

Harrizko etxea

Izlag. → P + erlazio hizkia (-n)

Irakurri duzun liburua

ERREGELAK

$P \rightarrow IS \text{ nor} + AS$

$P \rightarrow IS \text{ nork} + AS$

$IS \text{ nor} \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } (\emptyset)$

$IS \text{ nork} \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } (-k)$

$IS \text{ nori} \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } (-i)$

$IS \rightarrow (Izlag.) + Iz. + (Izond.) + (Det.)$

$Izlag. \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } (-en)$

$Izlag. \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } (-ko)$

$Izlag. \rightarrow Adlag. + \text{erlazio hizkia } (-ko)$

$Izlag. \rightarrow P + \text{erlazio hizkia } (-n)$

$Det. \rightarrow \text{mug.}$

$Det. \rightarrow \text{zenb..}$

$AS \rightarrow (IS \text{ nor}) + (IS \text{ nori}) + (Adlag.) + (Adond.) + (Post. S) + Ad.$

$Adlag. \rightarrow IS + \text{erlazio hizkia } \left\{ \begin{array}{l} (-ra) \\ (-raino) \\ (-tik) \\ (-n) \\ (-tzat) \\ (-rekin) \\ (-z) \\ \dots \end{array} \right.$